

ERA.EUS ATARI NAFARRA

Euskaldunentzat nahiz erdaldunentzat, euskaraz hezteko baliabideen portua

Hamabi urte arteko haurren familiei zuzenduta, Era.eus euskaraz bizitzeko eta euskal kulturen murgiltzeko uneak sortzen laguntzen dituzten baliabide ezberdinak eskaintzen dituen atari digitala da. Familien eskura jarritako tresna, halere, harago doan ekimena ere bada. Ez da proposamen ezberdinen erakusleihohutsa izatera mugatzen. Astero-ko artikuluek, aholkuek, ahots ezberdinen mezuek... proposamen dibertsoago bat osatzen dute, euskara eta haurren mundua ardatz dituen plataforma zabal bat eratuz. Adinaren arabera edo egoera eta testuinguru ezberdinetan jarrita, baliabide bakoitzak euskararen transmisioan laguntzeko jokatzeko duen papera azaltzen du webguneak, eta hori ere azpimarragarria da, euskara ohiko hizkuntza ez duten etxeetan laguntza osatuago

 **EUSKARA** / Nerea Goti

Hamabi urte arteko haurrak euskaraz hezteko egin beharreko bidaiak baliabideak eta inspirazioa behar ditu askotan, kantatzeko, jolasteko, irakurtzearekin goatzeko eta irakurzaletasuna bultzatzeko... Hizkuntzaren transmisioaren ibilbide horretan, Nafarroak badauka familiei laguntza emateko kai digitala: «Era.eus».

bat ematen duelako.

Erabiltzaile euskaldunentzat eta ez-euskaldunentzat pentsatuta, euskaraz kantatu, jolastu, irakurri... eta beste hainbat jarduera egiteko eskaintza zabala du webgune nafarrak. Horieta-ko asko erabilera une zehatz horien gaineko hausnarketa txiki batekin aurkezten dira, erabilera horien gakoak kokatzeko hausnarketak, argibideak eta gomendioak eskainiz.

Adibide bat jartzearen, “Sola-

sean” euskara indartzeko artikuluan, finean euskararekin harreman mugatua duten familiei zuzendutako programa azaltzen da, euskara entzun eta praktikatzeko aukerak eskaintzen dituzten proposamenekin, baina horren erabilgarritasunaren inguruko azalpen osatua ere ematen du.

Norbera ikasten ari den «hizkuntza horretan aritzeko ahalik eta aukera gehien edukitzeak» ikaskuntza «asko errazten» due-

la azaltzen dute, adibidez. «Etxean eta ingurune hurbilean euskarak presentzia urria duenean, haurrek euskararekin harreman mugatua izaten dute. Hortaz, bigarren hizkuntza bat ikasterakoan, bakoitzaren erraztasuna edo zailtasuna desberdina denez, fokua haurren familiarren jatorrian jarri beharrean, haurrek euskara eskolaz kanpo praktikatzeko aukeretan zentratu beharko litzateke», eranstean dute.

BALIOA AZALDUTA

Askotan euskara sustatzeko edukiak proposatzen dituzten plataforma ezberdinek era aseptiko batean eskaintzen dituzte, zeintzuk diren eta bakoitzaren zertan datzan aipatu edo zerrendatu, eta kito. Bortzirietako Euskara Mankomunitateak Euskaltzaileen Topagunearen laguntzarekin sortutako baliabide honen kasuan, etxetik egin daitezkeen keinu horiek zer balio duten nabarmentzen dute, euskaraz murgiltzeko baliabideek hizkuntza indartzeko ematen duten aukera gogoratuz.

Beste gako bat plazaratzen dute testuinguru horretan: «funtsezkoa» dela norbanakoen eta eragile ezberdinen aktibazioa, auzolan moduko baten bidez hizkuntza erabiltzeko guneak eta uneak eskaintzeko.

Antzeko hausnarketak partekatzen dira “Gurasoentzako aholkuak” izeneko atalean. Euskaraz hazteko aholkuak dira, jaioberrien inguruko bideo aholkuen bidez edo hizkuntza-familia-eskola triangelu horren barruko harremanetan sakontzeko. Besteak beste, Paula Casares, Iñaki Eizmendi, Nerea Mendizabal edo Julen Linazasoro bezalako erreferentziazko aholtsak eskura daitezke klik batean, bideoz jasotako hitzaldiak berreskuratuz; eta horien ondoan

Era.eus webgunea Nafarroako toki erakundeetako euskara zerbitzuak sortu zuten 2017an. Irudian, Marta Chamorro eta Aldredo Dufur, sortzaileetako bi. Jagoba MANTEROLA | FOKU



familientzako interesgarriak izan daitezkeen artikuluak eskaintzen dira.

EUSKARA ZERBITZUEK SORTUA

Era.eus-en ibilbidea ez da oso luzea; hiru urte baino ez ditu. Sarrera datuek, halere, erabilgarritasun maila handia erakusten dute; «sekulakoak» izan ziren datuak konfinamenduak iraun zuen bitartean, nabarmendu dutenez.

Nafarroako toki erakundeetako euskara zerbitzuek sortua, “Era”-k 2017an egin zituen lehen urratsak. Proiektua abian jarri zuen lantalde horren kide birekin hitz egin du GAUR8k. Marta Chamorro eta Alfredo Dufur Iruñeko Udalean eta Irantzu Mankomunitatean (Lizarralde) dira euskara teknikariak, hurrenez hurren. Biek azaldu dute hiru urteko bidaia hau nola sortu zen eta nola elikatzen duten familientzat ahalik eta erabilgarrien egiteko.

Hasierako une haietara itzultita, gogora ekarri dute hausnarketa prozesu batek marraztu zuela zer izan behar zuen Era.eus atariak. Haur eta Lehen Hezkuntzan haurrak dituzten familiei zuzenduta erakunde eta zerbitzu ezberdinek antolatuta edo sortuta zeuden edukiak ikusita, eduki eta proposamen horiek guztiak bildu eta era bateratuan eta formatu ahalik eta eraginkorrean eskaintzea izan zen planteamendueta-ko bat. Lehen bultzada horrekin, «Era.eus ideia eta marka» jaio zen, eta ondoren proiektuaren garapena etorriko zen, proposamen berrie-kin.

TXAPEL BAT EUSKARARENTZAT

«Gogoeta prozesu horretan, ordura arte landutako hainbat gauza beste modu batean landu behar genuela ikusi genuen», aipatu du Chamorrok. «Hizkun-

tzaren sozializazioan ari ginen baina era konpartimentatu batean, eta ezin da konpartimentatu; batetik eskola, familia... bereizten, eta beste alde batetik aisialdia, plaza... bizitzan hori dena konektatuta dago. Txapel beraren azpian jarri nahi genuen dena, modu interkonektatu batean aurkeztuz», zehaztu du.

Txapel horrek estetika marko bat ere eskaini die eduki ezberdinei, proposamen ezberdinei

Marta Chamorro euskara teknikaria da Iruñeko Udalean; Alfredo Dufur, Irantzu Mankomunitatean. Jagoba MANTEROLA | FOKU



lotura bisual bat emanez. Dufurren ustez, horrek laguntzen du markoaren eta jasotzen duen informazioaren identifikazioan.

IKASKETA PROZESUAN LAGUNTZEA

Kontuan hartutako beste faktore bat erabiltzaileen profila zen, familien izaera askotarikoei zuzendutako baliabidea sortzeko, atari digitala guraso euskaldun nahiz erdaldunentzat, zerbait dakitenentzat zein ikasten ari direnentzat pentsatuta baitago.

Asmoa, bultzatzaileek azaldu dutenez, ez zen bakarrik euskara edo euskal kulturara hurbiltzea. «Euskararen normalizazioaren eta sustapenaren testuinguru zabalean kokatuta, haurren ikasketa prozesua osatzen eta biribiltzen laguntzea» helburu nagusietako bat izan da sorreratik.

Euskarri fisikoetatik digitale-tara jauzi egitea Era.eus-ekin etorri zen beste alaketetako bat izan zen. Beste formatu batzuetan egiteko pentsatuak izan ziren jarduerak erakusleho digitalean bizi dira orain.

«Era.eus-ek proiektu osoari enbor komun bat emateko aukera eskaini digu, gai ezberdinen lanketarako adar guztiak nondik atera eta nondik abiatu izan dezaten, eta ‘Era’ eta bere inguruko sare sozial eta bestelako komunikazio tresnak enbor horri lotuta daude. Adarrak genituen eta enborra falta zitzailgun, sinbolikoki azaltzeko», gaineratu dute.

6.000 IKUSTALDI IZAN DITUZTEN EDUKIAK

Sarreraren arabera datuek Era.eus atariak erabilera handia duela erakusten dute, eta hori, zalantzarik gabe, tresnak duen baliorearen adierazle da. Datuak kontuan hartuta, “Jolasak eta solasak” atalaren bigarren edizioa aipatzen dute emaitza nabarmenetakoak jaso dituztenen artean. Familiei zuzendutako formula ezberdinak biltzen dituen sail horretan, edukietako bakoitzak 6.000 ikustaldi inguru izan zituen lehendabiziko asteetan. 2017.

urtetik honako datuak begiratu (2020. urtekoa kontuan izan gabe, eta orduko erabilera itzel igo zen itxialdian), erabiltzaile kopuruak ez dio handitze-ari utzi. Hazkundera irakurritako orrien kopuruan ere izan da urtetik urtera %20-25eko gorakadarekin. Konfinamendukoa, halere, izugarria izan zen. Entreenimendua, familia giroko uneak sortzeko aukera... «gurasoak porturatze-ko kai bat izan zen».

Konparazioarekin jarraituz, enborra eduki ezberdinekin elikatzen joan dira. Dufurrek aipatzen duenez, “Baliabideak” atalean «gauza pilo bat» dago. Bertan klikatuta, eskolaz kanpo-ko jardueren informazioa eskura daiteke, baita musikarekin lotutako edukiak ere, aplikazio ezberdinen gainekoak eta jostailuei buruzkoak, edo filmak eta marrazki bizidunak eskuratzeko sistema ezberdinak.

Era horretara, gurasoek mailleguan, online edo erosteko orduan dauden aukera ezberdinak aurkitzen dituzte zehaztuta. Ipuinei eskaintako leihobat ere zabaldu dute, eta bertan eskaintza ugaria da, bideo ipuinak, ipuin interaktiboak, audio ipuinak edo ipuin-paseoak bezalako proposamenekin hornituta. Ondoan, beste proposamen pare bat: literaturaren eta ipuinen inguruko artikulak, eta horien artean «etxean irakurzaletasuna sustatzeko ideiak», haurrentzat komikiak irakurtzeak dituen abantailen gaineko testua, irakurtzearen plazera elikatze-ri buruzko lerro batzuk, irakurzaletasunaren inguruko gida bat...

Erabiltzaileen profilari begirata, aipatzen dute euskara ikasten ari diren guraso asko dagoela eta horientzako mezua ez dela «ikasi, ikasi eta ikasi», badaudela aukera ezberdinak, eta dakienari «esan nahi diogu dakizun hori probestu, praktikan jarri umeei une jakin batzuetan, aukeratu zuek zein, eta une gozo bat izan dadila, lasai egotekoa, gozatzekoa».

Udalek, hedabideek, elkarteek edo ikastetxeek sortutako edukien ondoan, badaude “Era”-ko bultzatzaileek atarirako espresuki sortuak izan direnak. «Bideoak eta jolasak» guk ekoitzia da, aukera sortu zaigulako edo



materialean hutsuneren bat ikusi dugulako eta sortze-ri ekin diogu», zehazten du Dufurrek. «Enpresa batekin hitz egin dugu eta berarekin elkarlanean ipuinak aukeratu ditugu, fami- liekin harremanetan jarri, gra- bazio lekuak adostu eta poliki- poliki hornitzen joan da proiektua», azaltzen du.

“Web interaktiboa” bultzatzaileek eurek sortutako beste leihobat da. Kasu horretan, komuni- kazio enpresa baten laguntzarekin ipuin interaktiboak sortu

«Era.eus» atariaren zenbait eduki erakusten dituen irudia.
GAURB

Eskola munduarekin lotutako hainbat material bildu du atariak, hala nola irakurzaletasuna bultzatzeko edo euskararen transmisioan laguntzen duten tresnak eskuragarri jartzeko

«Era»-k bere bidea egiten jarraitu nahi du hezkuntza munduarekin ez ezik, eta kalean aritzen diren eragile ezberdinekin, elkarlanean kontrasteak eginez eta proiektuak partekatuz

dituzte familian gozatzeko, irudi, mugimendu eta interakzioan oinarrituta. “Era eskola” atalean hitzaldi telematikoak daude eskuragai. «Ahalik eta guraso gehienei egokituak, ha- mabost minutuko saioak dira, haien artean elkarri lotuta, hi- tzaldi osoa edo gai zehatz bat hartzeko moduko formatuan, eta kasu horretan, euskararen transmisio hori nola egin azal- tzeko adituen aholkuak biltzen ditu», zehaztu dute.

«Familiei hizkuntzaren trans- misioan laguntzeko Interneten zer dago?», etengabe buruan duten galdera da.

Behin edukiak aukeratuta, «antolatu, sistematizatu eta ahalik eta modurik intuitibo- nean eskaintzea» bigarren urra- tsa da. Azpimarratu dutenez, «materialaren zati bat ez zen agian helburu horrekin jaio, baina guk optika horrekin begi- ratu diogu». Batzuk udalek sor- tuak dira, beste batzuk ikaste-

txeetan, familia baten Youtube- ko kanalean... Aztertu egin ditu- gu, eta baloratu dugu merezi duela gurasoei helaraztea, eta horien erabilera eskaini dugu», aipatu du Dufurrek.

Chamorrok erantsi du adinari begiratzen diotela bereziki, bai- ta kalitateari ere eta, materiala- ren arabera, genero perspekti- bari. Hizkuntza ezagutza mota ezberdinak dituzten gurasoen- tzako baliagarria izatea da kon- tuan hartu ohi duten beste fak- tore bat. Ahal den neurrian «mezua eta tresnaren erabilera gurasoen ezaugarrietara doi- tzen» saiatzen dira.

Sarrera datuei begirata, erraz jakin daiteke zein den erabilera gehien eta sarrera gehien izan duen edukia, bai- na datuak aldakorrak dira, dio- tenez. Batzuetan ematen du era nabarmenagoan direla gaztelaniaz hurbiltzen diren erabiltzaileak, beste batzuetan euskaldunak dira baliabide edo atal zehatz batean sartzen direnak. Orain arte ez dute zu- zeneko kontrasterik izan, bai- na herrietan eta udalerrietan euskara teknikariei helarazita- ko iritziak jaso dituzte, baita modu ez-formalean, inguruko gurasoei galdetuta.

“Era” harremanetan dago, bestalde, hezkuntza munduarekin, eskola eta ikastolekin bere- ziki. Nabarmendu dute hezkun- tza munduko komunitateekin eta eragileekin «sinergiak eta aliantzak» bultzatzea hasieratik markatutako zeregin bat izan dela, eta horretan sakontzeko asmoa daukatela.

Alfredo Dufurrek erantsi due- nez, eskola munduarekin ez ezik, webguneak bere ibilbidea kalean, plazan dauden eragile batzuekin eta erakundeekin egi- ten jarraitu behar du, elkarlane- an, kontrasteak eginez eta proiektuak partekatuz.